

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2369

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 27koa, Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendariarena, zenbait lege aldatzeko Lege-Aurreproiekta jendaurrean jartzen duena, beroiek barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE zuzentara raurera egokitu daitezen.

2009ko azaroaren 17ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren bidez, IX. legegintzaldiko legegintzategia onartu zen, 2009-2013 aldirako, eta Lehendakaritzari egotzi zitzaison zenbait lege aldatzeko lege-aurreproiekta egitea, lege horiek barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentara raurera egokitzeko. Lege horrek, Jaurlaritzaren baitan eta, ondoren, Legebiltzarrean izapidetu ondoren, honako lege hauek aldatuko ditu:

4/1991 Legea, ekainaren 18koa, Euskal Herriko Jokoarena.

7/2006 Legea, abenduaren 1eko, Euskadiko Museoi buruzkoa.

8/2004 Legea, azaroaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriakoa.

6/1994, martxoaren 16koa, turismoa antolatzen duena.

5/2004 Legea, maiatzaren 7koa, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzekoa.

3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena.

18/1997 Legea, azaroaren 21eko, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa.

12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.

11/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmaceutikoari buruzkoa.

12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

1/2008 Legea, otsailaren 8koa, Familia Bitartekaritzakoa.

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruan eta Hirigintzari buruzkoa.

Era berean, indargabetu egingo da 165/1999 Dekretua, martxoaren 9koa, Euskal Autonomia Erkide-

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

2369

RESOLUCIÓN de 27 de abril de 2010, del Director de Estudios y Régimen Jurídico, por la que se somete a información pública el Anteproyecto de Ley de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior.

Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno de 17 de noviembre de 2009 se aprobó el Calendario Legislativo de la IX Legislatura para el período 2009-2013, encomendándose a Lehendakaritza la elaboración del Anteproyecto de Ley de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior. Dicha Ley, tras su oportuna tramitación en el seno del Gobierno y posteriormente en el Parlamento, modificará las siguientes Leyes:

Ley 4/1991, de 18 de junio, de Juego en el País Vasco.

Ley 7/2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi.

Ley 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo.

Ley 5/2004, de 7 de mayo, de Ordenación Vitivinícola.

Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales.

Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar.

Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Asimismo, derogará el Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividad

goko Ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorean adierazten den jardueralizentziarik lortu behar ez duten jarduerak zein diren zehazten dituena.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Ebazpen honi dagokion arauketak zehaztugabeko hainbat pertsona fisiko eta juridikori eragiten die, eta pertsona horiek ez daude beti guztiak biltzen edo ordezkatzen dituzten antolakundeetan sartuta, eta horregatik komenigarria da jendaurrean jartzea.

Lege-aurreproiektu hau egiteko prozedura hastea agintzen duen Lehendakariaren otsailaren 15eko 4/2010 Dekretuak Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari egozten dio aurreproiektua izapideztea.

Aurreko guztiaren ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Jendaurrean jartzea, hogei egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, zenbait lege aldatzeko lege-aurreproiektua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko.

Bigarra.— Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta nahi duenak alegazioak aurkezteko, lege-aurreproiektuaren edukia Lehendakaritzako Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteizko Nafarroa kaleko 2.ean) egongo da eskuragarri, bai eta Interneteko www.euskadi.net atarian, Lehendakaritzaren atalean, eta halaber, [www.irekia.euskadi.net](http://irekia.euskadi.net) webgunean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 27a.
Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,
JOSÉ LUIS ARAMENDIA CORDÓN.

des exentas de la obtención de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Según lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos y ciudadanas serán objeto de trámite de audiencia. Asimismo, y cuando la naturaleza de las disposiciones lo aconseje, se someterán a información pública.

La regulación que se pretende afectará a una pluralidad indeterminada de personas físicas y jurídicas, no siempre integradas en organizaciones que las agrupe o represente, siendo aconsejable por ello someterla a información pública.

El Decreto 4/2010, de 15 de febrero, del Lehendakari, por el que se ordena el inicio del procedimiento de elaboración de este Anteproyecto de Ley encomienda su tramitación a la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.

Por todo lo anterior,

RESUELVO:

Primero.— Someter a información pública por un período de veinte días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín oficial del País Vasco, el Anteproyecto de Ley de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior.

Segundo.— A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior y en orden a la presentación de alegaciones, el contenido del Anteproyecto de Ley se hallará disponible en la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico de Lehendakaritza, sita en Vitoria-Gasteiz, calle Navarra n.º 2, en el portal de internet www.euskadi.net en el apartado de Lehendakaritza, así como en el de Gobierno Abierto www.irekia.euskadi.net.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2010.

El Director de Estudios y Régimen Jurídico,
JOSÉ LUIS ARAMENDIA CORDÓN.